



Euskadiko Irakasle Jubilatuak
Asociación de Docentes Jubilados del País Vasco
Ap. Correos 25 01080 Vitoria-Gasteiz

info@adostuz.eus

Lehendakari Jauna:

Zure erantzunak harritu egin gaitu, ez baitator bat zutaz dugun iritziarekin. Beti egon zara elkarrizketarako irekia zein adostasunetara heltzeko prest. Hala ere, ez duzu Adostuz Irakasle Jubilatuak elkartearekin bildu nahi izan. Bereziki harritu gaitu horrek, zu ere irakaslea izanik, eta gure aldarrikapenarekiko jarrera abegikorragoa ez izanak, bestelakoa espero baikenuen.

Beti eskatu dizugu emandako hitza betetzea, zuri entzuna baitizugu hitz ematearen eta betetzearen balioa zein den garrantzizkoa. Honela azaldu zenuen irailaren 20ko osoko bilkuran honako hau esan zenuenean: **"continuar con el incumplimiento deslegitima a quien solicita que se adopten soluciones integradoras"**. Uste berekoak gara, hitza bete egin behar da. Beraz, hainbatetan eman diguzuen hitza betetzeko garaia da:

A) 2012ko martxoaren 15ean zure alderdiak Aralarrek aurkeztu zuen legez besteko proposamenaren alde bozkatu zuen, eta bertan hauxe eskatzen zen:

- 1.- "Ezaba ezazula 9/2012ko urtarrilaren 31ko Dekretua. Bertan agertzen dira diru-mozketak, eta horien artean gaisotasunari, borondatezko erretoiari, errelebo-kontratuei e.a. dagozkionak".
- 2.- "Gaurkotu eta martxan jar itzazula Elkarte Autonomoko Administrazioaren Negoziazio-Mahai Orokorraren 2009/11/18ko Akordioan hitzartutako zera guztia"...

B) Lehendakaritzara heldu zinenean, 2012an erretiratu ziren lankideei zure alderdiak eta zure gobernuko ordezkariak, hiru aldiz, hitz eman zenieten arazoari konponbidea emango zenietela eta indemnizazioen "etete" a bertan behera utziko zenutela 2013an. Hitza bete ez zenutenez, epaitegietara jotzera behartua izan da gure kolektiboa.

C) 2017an abenduaren 4an Hezkuntza Batzordean izan ginen eta zure alderdikidea eta gobernukidea den Aitor Urrutiak honela erantzun zigun: "Aspalditik datorren borondatea, bestalde, gu politikoki ez gatozelako bat eta ez ditugulako gure gain hartzen orduan Madrilen eta Gasteizen hartu ziren erabakiak, nahiz eta orain gure Gobernu arduengatik arazoari aurre egin behar izan. Eta sinetsita nago horrela egingo dugula. Eta inork ez dezala zalantzarik izan bide hori hartzen badugu eta irtenbide bat bilatzeko gai baldin bagara, ez dugula gure hitza jango eta hitzetatik ekintzetara pasako garela."

Sr Lehendakari:

Su respuesta nos ha sorprendido, no se corresponde con la idea que tenemos sobre Ud., ya que siempre le hemos considerado una persona abierta al diálogo. Nos ha extrañado especialmente el hecho de que no acceda a dialogar con Adostuz (Asociación de Docentes jubilados). Esperábamos que, dado que es profesor, tuviera especial sensibilidad hacia la cuestión que planteamos.

Siempre le hemos pedido que cumpla su palabra, dado que le hemos escuchado lo importante que es cumplir la palabra dada. Así expresó en el pleno del 20 de septiembre: **"continuar con el incumplimiento deslegitima a quien solicita que se adopten soluciones integradoras"**. Coincidimos con Ud., hay que cumplir la palabra. Es hora de cumplir la palabra que tantas veces nos han dado:

A) El 15 de marzo de 2012 en el pleno de la discusión de la Proposición no de Ley presentada por Aralar su partido votó lo siguiente :

- 1.- Que se "Anule el Decreto 9/2012, de 31 de enero, que recoge los recortes, entre otros, en los supuestos de enfermedad, jubilación voluntaria, contrato de relevo, etc.."
- 2.- "A que actualice y ponga en vigor los contenidos del acuerdo de 18-11-2009 de la Mesa General de Negociación de la Administración de la C.A., etc.."

B) Tras su acceso a la Lehendakaritzara, su Partido y representantes de su Gobierno dieron su palabra, por tres veces, a las y los compañeros jubilados en 2012 de que se comprometían a solucionar el problema levantando la suspensión en 2013. Posteriormente lo incumplieron forzando al colectivo a ir a la vía judicial.

C) El 4 de diciembre de 2017 en la Comisión de Educación Aitor Urrutia, en representación de su partido y del gobierno, nos respondió así: "Aspalditik datorren borondatea bestalde, gu politikoki ez gatozelako bat eta ez ditugulako gure gain hartzen orduan Madrilen eta Gasteizen hartu ziren erabakian, nahiz eta orain gure Gobernu arduengatik arazoari aurre egin behar izan. Eta sinetsita nago horrela egingo dugula. Eta inork ez dezala zalantzarik izan bide hori hartzen badugu eta irtenbide bat bilatzeko gai baldin bagara, ez dugula gure hitza jango eta hitzetatik ekintzetara pasako garela."



Euskadiko Irakasle Jubilatuak
Asociación de Docentes Jubilados del País Vasco
Ap. Correos 25 01080 Vitoria-Gasteiz

info@adostuz.eus

D) 2018ko abuztuaren 2an Lehendakartzatik jaso genuen eskutitzean gai horrek sektore anitzeko azterketa behar zuela adierazten zen, baina guk sektore anitzeko bilera eskatu dugunean oso gogor eta tonu desegokian erantzun digu Lehendakartzak.

Bide luze honetan, hitza betegabe utzi ez ezik, hitzak aldatu egin dituzue: "eten" esan ordez "EZABATU" erabiltzen duzue eta honela galdetzen diguzue: "Zuek benetan badakizue Eusko Legebiltzarrean onartu den lege batek kalte-ordaina **ezabatzea** edota indemnizaziorik ez aurreikustea esan nahi duen?".

Eusko Parlamentuan onartutako Aurrekontuen Legean kalte-ordaina ordaintzeko partidarik ez ezartzeak ez du esan nahi horiek ezabatzen direnik, etenda egon daitezke-eta. Horixe da, hain zuzen ere, Aurrekontuen legean jartzen duena:

"Etenda geratuko dira haren aplikazioan, orobat, borondatezko erretiroagatiko sariak, kalte-ordainak eta izen guztietako edozein diru-prestazio konpentsagarri arautzen dituzten artikulua eta klausulak, beste edozein izenpetan aipatzen badira ere. Etete horrek ...urtarrilaren 1etik...abenduaren 31ra bitartean aurre erretiratutako hezkuntza publikoko langileriarri eragingo dio".
(19. ARTIKULUA. 13. PUNTUA
http://www.legebiltzarra.eus/pdfdocs/leyes/ley20170002_t_eus.html).

Begirune handiz, baina irmoki, esan behar dizugu, guk ondo baino hobeto bereizten ditugula hitzok, bai horixe! Ez jardun, mesedez, gure jendea nahasten, guk argi bereizten baitugu "ETEN" eta "EZABATU" hitzen arteko ezberdintasuna. Zuek zarete, antza, horiek horrela bereizten ez dituztenak.

Ibilbide luzezka honetan ikusi dugu gero eta kontraesan handiagoak daudela, eta EAJ eta haren Gobernuaren arazoa konpontzeko borondate garbia adieraztetik indemnizazioak ezabatu egingo direla esatera pasatu dira.

Orain ezabatutzat jotzen badituzue, zergatik ez zenuten argi adierazi hori Aralarrek legez bestekoa aurkeztu zuen garaian? Zuen orduko bozka itxuratizkoa ez ote izan, oposizioan egonik joku gisa Hezkuntza Publikoa erabilita?

Zergatik ez zenuten behingoz argi utzi ezabatuta dagoela Hezkuntza Batzordeko agerraldian, edo BILDUK legez besteko proposamena aurkeztu zuenean? Itxurakeriak egiten aritu zarete, agian, hori denen aurrean adieraztea lege-akats larria izanik?

Lan Akordioan kalte-ordaina jasotzeko eskubideak

D) En la carta recibida de Lehendakartzita el 2 de agosto de 2018 se nos decía que el problema requiere un análisis multisectorial, y cuando hemos solicitado dicha reunión se nos responde con un tono totalmente inadecuado.

En este largo camino, no solo han incumplido su palabra, las han cambiado: en lugar de "suspensión" ahora utilizan "SUPRESIÓN" y nos preguntan: "¿Ustedes saben qué significa que una ley aprobada en el Parlamento Vasco suprima o no contemple una previsión indemnizatoria?"

Que una Ley de Presupuestos aprobada en el Parlamento Vasco no contemple una previsión indemnizatoria no quiere decir que la esté suprimiendo, puede estar suspendida. Precisamente es lo que pone en la Ley de Presupuestos:

*"Quedarán también **suspendidos** en su aplicación los artículos y cláusulas en los que se regulan premios, primas, indemnizaciones y cualquier tipo de prestación económica que se perciba con la jubilación voluntaria, cualquiera que fuera su denominación. Dicha suspensión afectará las jubilaciones voluntarias del personal empleado público cuya fecha de efectos se produzca entre el 1 de enero de y el 31 de diciembre de"*
(19. ARTIKULUA. 13. PUNTUA
http://www.legebiltzarra.eus/pdfdocs/leyes/ley20170002_t_eus.html)

Con todo respeto, pero con firmeza, debemos decirle que sí, nosotros lo entendemos perfectamente. No busque en nosotros el malentendido, nosotros distinguimos perfectamente entre "suspender" y "suprimir". Parece que son Vds. quienes no lo distinguen.

En todo este recorrido apreciamos que la contradicción es mayor cada vez y el PNV y su gobierno han pasado de expresar su voluntad para arreglar el problema a decir que la indemnización está suprimida.

Si consideran que está suprimida, ¿por qué no lo dijeron en el debate de la PNL presentada por Aralar en 2012? ¿El voto fue puramente una jugada por estar en la oposición, utilizando para ello a la Enseñanza pública?

¿Por qué no lo dijeron en la comparecencia de la Comisión de Educación o en el pleno donde se discutió la PNL presentada por BILDU? ¿Han estado fingiendo, quizás porque no podrían decir públicamente algo que es una incorrección legal tan manifiesta?

El derecho a percibir la indemnización se mantiene en



Euskadiko Irakasle Jubilatuak
Asociación de Docentes Jubilados del País Vasco
Ap. Correos 25 01080 Vitoria-Gasteiz

info@adostuz.eus

hortxe dirau. Egia da Aurrekontuen Legean "etenda geratuko direla" ezartzen dela, baina ETENDA, eta ez EZABATUTA.

Kontraesana handiagoa da haintzat hartzen badugu EZABATU ziguten gainsari-ordaina gero ordaindu egin zigutela.

Kalte-ordaina ezabatuta baldin badago, zergatik esaten diguzue epaitegietara jo izan ez bagenu gurekin negoziatzeari ekingo zenietela? Zeuen hitzari huts egiteak behartu gintuen horretara. Zer dela eta oraingo eskaintza hori, zuen ustez indemnizazioa eskuratzeko eskubidea ezabatua badin badugu? Zergatik esan digu orain zure gobernuko kontseilari batek ezinezkoa dela ordaintzea langile askori eragiten baitio? Zuen parlamentari eta aholkulariek esaten digute arazoa diru eskasia dela, gero zuk guri erantzuterakoan honela diozunean: "kontu horrek ez dauka gure ekonomia multzoarekin elkarmenderatasunik"

Utz ditzagun argi gauzak: zure jarrera eta zure Gobernuarena ez dira batere duinak. Zuk diozu: "ezinbestekoa da borondate politikoa Aurrekontu publiko bateko presupostu partidetan gauzatzea, bestela izanik iruzurra egitea eskatuko zigutelako". **Legebiltzarrak berak esan du guri ordaintzeko**, eta bide onetik dakigu 2019ko aurrekontuei emendakina aurkeztuko diotela hainbat talde politikok diru-partida bat gauzatzeko. Baina zure alderdia da hitza betetzeko borondaterik ez daukana, eta atzera botako duzue.

Gainera, dakigunez, zuek emendakin horren betoa jartzen ahaleginduko zarete aurrekontuak sinatzeko prest dagoen edozein alderdiri. PSE-EEk ondotox daki arazoa beraiek sortu zutela eta orain konpondu nahi izango dute zure alderdiaren laguntzaz. Beraz, borondate eta hitz-betetze eza zuengan baino ez dago.

Babes juridiko eza
Langileon ordezkariekin negoziatu gabe Lan Akordioan ezartzen den eskubidea etetean babes juridikorik gabe utzi gintuen PSE-EEren gobernuak, eta zuekin ere segurtasunik gabeko egoera horretan jarraitzen dugu. Langileok gure lan akordioa betearazteko epaitegietara jo behar izan dugu, lazgarria izanik erretiroan ere horrela ibili beharra.

Ez gara nekatuko behin eta berriro esaten gure eskubideak tinko dirauela. Arartekoak eta epaileek ere eskubide hori onartzen digute, baina Legebiltzarrari dagokio orain "etete" hori indargabetzea, ez baita sekula EZABATZERIK EGON.

Gure aurre-erretiroari esker 3500 irakasle

el Acuerdo Laboral. Es cierto que en la Ley de presupuestos aparece que quedarán "suspendidas", pero SUSPENDIDA no es SUPRIMIDA.

La contradicción es mayor si tenemos en cuenta que la paga extra que se SUPRIMIÓ luego se nos pagó.

Si la indemnización está suprimida, ¿por qué se nos dice que si no hubiéramos acudido a los tribunales, habrían negociado? cuando fueron Vds. quienes nos forzaron a ello al incumplir su palabra. ¿Por qué ese ofrecimiento, si según Ustedes está suprimido el derecho a cobrar la indemnización? ¿Por qué nos ha dicho un consejero de su gobierno que no se nos puede pagar porque afecta a muchos trabajadores? ¿Por qué se nos dice por sus parlamentarios y consejeros que el problema es el dinero y ahora en su respuesta nos dice que "no se encuentra interdependiente del conjunto de nuestra economía"?

Hablemos claro, su actitud y la de su Gobierno no resultan dignas. Dice "Resulta imprescindible que la voluntad política se materialice en las partidas presupuestarias de un Presupuesto público, porque de lo contrario nos estarían pidiendo defraudar". Precisamente, el Parlamento ha dicho que se nos pague y sabemos bien que varios partidos políticos presentarán enmienda para concretar una partida económica. Sin embargo, es su Partido el que no tiene voluntad de cumplir su palabra y lo impedirá.

Además, nos consta que Ustedes pretenden vetar dicha enmienda a cualquier partido que quiera dar su apoyo al proyecto de presupuestos. El PSE-EE es consciente de que generaron el problema y quieren solucionarlo también con el concurso de su Partido. La falta de voluntad y de palabra está exclusivamente en Ustedes.

Inseguridad jurídica

El PSE-EE al suspender el derecho recogido en los artículos del Acuerdo Laboral, sin negociar con los representantes de los y las trabajadoras, nos dejó en una situación de inseguridad jurídica y Ustedes han dado continuidad a dicha inseguridad. Las y los trabajadores públicos nos vemos obligados a acudir a los tribunales, lo cual es aún más duro en la jubilación.

De nuevo, reafirmamos que tenemos nuestro derecho intacto. Tanto el Ararteko como los jueces nos reconocen el derecho, pero es el Parlamento quien tiene que levantar la "suspensión", NO LA INEXISTENTE SUPRESIÓN.

Gracias a nuestra jubilación anticipada, hemos dejado



Euskadiko Irakasle Jubilatuak
Asociación de Docentes Jubilados del País Vasco
Ap. Correos 25 01080 Vitoria-Gasteiz

info@adostuz.eus

gazterentzat lanpostua utzi dugu. Horixe izan zen akordia: irakasle gazteentzat lanpostua utzi, eta trukean guk kalte-ordaina jaso.
Guk gurea bete dugu, orain zuen txanda da: ohitura zaharrari jarraitu eta bete zuen hitza!

Adeitasunez,

3500 puestos de trabajo para el profesorado joven. Ese fue el acuerdo, dejábamos el puesto y se nos daba una indemnización.
Nosotros hemos cumplido, ahora les toca a Ustedes: En el respeto a nuestra tradición icumplan su palabra!

Atentamente,

Vitoria – Gasteizen, 2018ko azaroaren 13an

Luisa Calvo Arbidi
Adostuz, Euskadiko Irakasle Jubilatuak Elkartearen Presidentea